

## BAIMENAK 10 -MDL/MDP/VD/MPC/VPC-Salgaiak/bidaiariak autobusez garraiatzeko baimenen helbide aldaketa

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Garraio baimenaren titularraren helbidea aldatzea.

### Nork tramitatzen du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

### Harremana

#### Helbidea:

Julio Caro Baroja plaza, beheko solairua - atzealdea, 20018 Donostia

#### Ordutegia:

8:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera

#### Helbide elektronikoa:

[garraiobaimenak@gipuzkoa.eus](mailto:garraiobaimenak@gipuzkoa.eus)

#### Harremanetarako telefonoa:

943 112991

### Nori zuzenduta

Enpresak eta autonomoak.

### Baldintzak

- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.
- Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkari eroldan alta emanda egon behar du.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko agiriak

1.- Eskaera, behar bezala beteta. [GBE](#)

• Garrantzitsua: ibilgailu bakoitzeko eskaera bat bidali behar da.  
2.- Tasaren ordainketa (19,12€): ES65 2095 0611 091061117395 banku kontura egindako transferentziaren ordainagiria.

• Garrantzitsua: ibilgailu bakoitzeko tasa baten zenbatekoa ordaindu behar da.  
3.- Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioak ofizioz erregistro publiko zehatz batzuetara sartzea ahalbidetzen duena. [ERREGISTRO PUBLIKOAK](#)

4.- Helbide-aldaketa DGTn eginda, bai ibilgailuarena eta bai titularrarena.

5.- BEZaren eroldan helbide aldaketa (036).

#### **Pertsona fisikoa izanez gero, horietaz gain honako hau:**

6.- Erroldatzea, non helbide berrian noiztik bizi den adierazten den.

#### **Pertsona juridikoa izanez gero:**

7.- Enpresaren IFKren fotokopia, helbidea aldatuta.

8.- Sozietatearen helbide aldaketa jasotzen duten eskriturak. Hilabete bat baino gehiago igaro bada, ohar soila edo dagokion merkataritza-erregistroak emandako ziurtagiria, honako hauek jasotzen dituen:

- Helbide-aldaketaren eskrituren data.
- Erregistroan helbide-aldaketaren idatzoharra inskribatzeko data.

### **Salgai astunen garraio publikorako (MDP) eta bidaiariak autobusez garraiatzeko (VD) baimenen titularrentzat soilik:**

9.- Baimenaren titularraren adierazpena zeinean enpresaren jarduera profesionalaren egoitza adierazten den. [JARDUERAREN EGOITZA AITORPEN A](#)

10.- Gainera, jarduera etxebizitza partikular batean egiten bada, ikuskaritza etxebizitza horretan sartu ahal izateko

baimena. [JARDUERAREN EGOITZA-IKUSKARITZA BAIMENA](#)

Helbide aldaketak **probintzia aldaketa badakar**, hasierako baimena emateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu beharko du baimen berriaren fitxan ageri den dokumentazioa aurkeztuta:

Ibilgailu astunak (MDP): <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/listado-tramites/-/tramiteak/xehetasuna/21/2140>

Ibilgailu arinak (MDL): <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/listado-tramites/-/tramiteak/xehetasuna/21/2138>

Bidaariak autobusez (VD): <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/listado-tramites/-/tramiteak/xehetasuna/21/2266>

## Eskaera moduak

» Internet

## Internet bidezko eskaera

Eskaera eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez bidali behar da.

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do>

## Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: bost hilabete.

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

## ARAUDIA

---

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)